Santi kurutze Kanpezun, Kanpezuko Udaletxeko bilkura aretoan, bi mila hogeita hiruko maiatzaren hogeita hiruan, arratsaldeko zortziretan, lehen deialdian bildu dira lehen aipatutako zinegotziak, osoko bilkuraren ohiko bilkura egiteko, Ibernalo Basterra Txasko Alkate andrea buru dela, eta bitarteko idazkari kontu-hartzailea bertan dela.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2c) artikularekin eta Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 90. artikularekin bat etorritik, beharrezko quoruma hasi ahal izateko egiaztatzen da, eta ondoren, gai-zerrendan sartutako gaiak bideratzen dira.

## 1. AURREKO OHIKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA

Lehendakari andreak galdetu du ea korporazioko kideren batek oharren bat egin behar duen 2023ko apirilaren 18an egindako ohiko bilkuraren aktari buruz. Akta horren kopia bana helarazi zitzaion jaun-andreei bilkura honetarako zitzazioarekin batera.

Gehiengo osoz (Basterra, Muñoz, Ruiz de Loizaga, Quintana Urrea, López de Luzuriaga, Sáenz aldeko bozkekin eta Quintana Uriarte, Castellano eta Herrador jaunaren abstentzioekin) onartu da 2023ko apirilaren 18ko ohiko akta.


Aurkeztutako akta gehiengo osoz onartu da. Lehendakari andreak akta hori onartutzat jotzen du, eta akta-liburura transkribatzeko agintzen du, AJAren 110.2. artikularekin bat eginez.

## 2. ALKATETZAREN DEKRETUAK

AJAren 42. artikuluan agindutakoa betetzeko, Alkateak labor azaldu dizkio Udaltzari azken osoko bilkuratik hona hartu dituen ebazpenak. Hona hemen ebazpenak:

2023ko DEKRETUAK

105	2023/04/17	ETXEBIZITZA KOMUNITARIOKO LEHEN SOLAIRUKO LURZORUA ORDEZKATZEKO KONTRATU TXIKIA ESLEITZEA
106	2023/04/17	IGERILEKUETAKO TABERNA HORNITZEKO KONTRATU TXIKIA ESLEITZEA
107	2023/04/17	GAINBALIOEN LIKIDAZIOA ONARTZEA
108	2023/04/17	KLORO ETA AZIDO KONTRATUA ESLEITZEA
109	2023/04/17	6 1ª GAZTELURA IGOTZEKO ERRENTAMENDU KONTRATU SUNTSIARAZTEA
110	2023/04/17	BANKU BILDALKETA ONARTZEA
111	2023/04/17	FURGOI-IBILGAILUA HORNITZEKO KONTRATU TXIKIA ESLEITZEA
112	2023/04/18	GAINBALIOEN LIKIDAZIOA ONARTZEA
113	2023/04/19	OTEOKO BEHEKO AUZOKO 12. ZENBAKIAN ESTALKIA BIRGAITZEKO OBRA LIZENTZIA EMATEA
114	2023/04/19	SANTIKURUTZE KANPEZUKO 1. BASELIZAKO FATXADA BIRGAITZEKO OBRA LIZENTZIA EMATEA
115	2023/04/19	SANTIKURUTZE KANPEZUKO 43. HIRIBILDUKO ESTALKIAN ETA FATXADETAN KONPONKETAK EGITEKO OBRA LIZENTZIA EMATEA
116	2023/04/20	BALIOGABETUA
117	2023/04/24	UDAL IGERILEKUKO ARAZKETA INSTALAZIOAK MANTENTZEKO KONTRATUA ESLEITZEA
118	2023/04/24	HONDAKIN BELTZEN BONBA HORNIDURA LA BERGUILLA
119	2023/04/24	1 POLIGONOKO 2084. LURZATIAN URA HARTZEKO OBRA LIZENTZIA EMATEA
120	2023/04/24	ORBISOKO 15. ZENBAKIKO ZENTROA LEGEZTATZEKO ETA BIRGAITZEKO OBRA LIZENTZIA EMATEA
121	2023/04/24	IGERILEKUETAKO PONPEN ELEKTROBALBULAK ET AHODIAK KONPONTZEKO ESLEIPENA
122	2023/04/24	SOROSLE LANPOSTURAKO ONARTUTAKOEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ONARTZEA
123	2023/04/24	APIRILEKO LANGILEEN NOMINAK ONARTZEA
124	2023/04/24	LANBIDEKO LANGILEEN KITAPENAK ONARTZEA
125	2023/04/24	BANKU-BIDALKETA ONARTZEA
126	2023/04/24	BITARTEKO LANGILEAREN OINARRIAK ONARTZEA
127	2023/04/24	HAUTESKUNDE MAHAIAREN ZOZKETA EGITEKO OSOKO BILKURA DEIALDIA ENPLEGUA EGONKORTZEKO PROZESUAN ONARTUTAKOEN BEHIN BEHINEKO ZERRENDA ONARTZEA
128	2023/04/25	SANTIKURUTZE KANPEZU 29. ZENBAKIAN FATXADA PINTATZEKO OBRA LIZENTZIA EMATEA
129	2023/05/03	ANTOÑANAKO SOL DE ARRIBA 4. ZENBAKIAN ESTALKIA BIRGAITZEKO OBRA LIZENTZIA EMATEA
130	2023/05/03	BANKU BIDALKETA ONARTZEA
131	2023/05/04	GASTEIZ-LIZARRA ERREPIDEKO LONJAREN FATXADA MARGOTZEKO KONTRATU TXIKIA ESLEITZEA
132	2023/05/04	UDAL ERAIKINETAKO ERRETEENAK GARBITZEKO ETA TEILATUAK BERRIKUSTEKO KONTRATU ESLEIPENA
133	2023/05/04	BERRIKUSTEKO KONTRATU ESLEIPENA
134	2023/05/05	GAINBALIOEN LIKIDAZIOA ONARTZEA
135	2023/05/08	SOROSLEEN LAN POLTSAREN BEHIN BETIKO ZERRENDA ETA BEHIN BETIKO MEREZIMENDUEN BALORAZIOA ONARTZEA
136	2023/05/09	MEREZIMENDUEN BALORAZIOA ONARTZEA
137	2023/05/10	GAINBALIOEN LIKIDAZIOA ONARTZEA
138	2023/05/11	ORBISOKO LA FUENTE KALEKO 1. ZENBAKIAN BILTEGIA BIZITEGI ERABILERRARAKO BERRITZEKO OBRA LIZENTZIA EMATEA
139	2023/05/16	BERRITZEKO OBRA LIZENTZIA EMATEA
140	2023/05/17	BERRERABIL DAITEZKEEN EDALONTZIAK HORNITZEKO KONTRATU TXIKIA ESLEITZEA



141	2023/05/18	BANKU BIDALKETA ONARTZEA
142	2023/05/18	2023KO MAIATZAREN 23KO OSOKO BILKURAREN DEIALDIA

Alkateak udalbatzako kideren batek dekretuei buruzko oharren bat egin nahi duen galdetu du.

Quintana Uriarte andreak hitza hartu du esleitutako kontratu txikiei buruz galdetzeko, besteak beste, 105. 106, 108, 111 eta 117 dekretuei buruz.

Alkateak erantzun du kontratuen edukia, esleipendunak eta prezioak azaldu ditu. Besteak beste, etxebizitza komunitarioko lehen solairuko lurzorua ordeztzeko obra, sukaldeko ekipamendua , igerilekuko kloro eta azidorako kontratua, eta igerilekuetako araztegia mantentzeko kontratua.

Quintana Uriarte andreak erositako ibilgailu motari buruz galdetu du. Zehazki, galdetu du ibilgailu elektrikoaren aukera baztertu den. Alkateak jakinarazi du erregai arrunteko furgoneta bat erosi dela.

Alkateak 121, 132, 133, 135 eta 140 dekretuen beri ematen jarraitu du.

Quintana Uriarte andreak galdetu du ea horiek guztiak Alkatetzaren Dekretuak diren. Horri baietz erantzun zaio. Quintana Uriarte andreak jarraitu du, odolkidetasun-maila dela eta kontratazioan egon daitezkeen bateraezintasunei buruz galdetzen.

Alkateak adierazi du ez direla kontuan hartu.

Saenz andreak hartu du hitza, eta adierazi du horrelako herri txikietan beti egongo lirakeela bateraezintasunak.

Quintana Uriarte andreak kontratazioan egon daitezkeen bateraezintasunen berri emateko eskatu dio Idazkaritzari.

Udalbatza jakinaren gainean gelditzen da.

### **3.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALA LGTBIFOBIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUN DELA ETA**

Alkate andreak hitzar hartu du, eta Saenz gizarte arloko zinegotziari eman dio hitza. Hark maiatzaren 17a LGTBifobiaren aurka egindako nazioarteko adierazpena irakurri du, Berdinu Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak bidalitakoa:

*“Maiatzaren 17an, ahotsa goratzen dugu (are gehiago) LGTBI pertsonen aurkako erasoak salatzen eta pertsona bakoitzaren errespetuan eta askatasunean oinarritutako gizarte justua, berdintasunezkoa eta askotarikoa eskatzeko. Argi dago indarkeria erabiltzeko modu asko daudela; LGTBI pertsonak badakite hori, eta egunero pairatzen dute. Eusko Jaurlaritzak diskriminazioaren aurka borrokatzeko bultzatzen duen ERABEREAN sarearen azken txostenaren arabera, sexu- orientazioagatiko eta/edo generoagatiko erasoak gure gizartean ohikoena den bigarren diskriminazio-modua dira. Toki-mailan, IKUSGUNEK – Vitoria-Gasteizko LGTBifobiaren aurkako Behatokiak – zehazten du jasotzen diren eraso gehienak transfobiarekin lotuta daudela, eta horien salaketak esponentzialki areagotu direla.*

*Agerikoa da salaketak ugaritu izana LGTBI komunitateak urteetan jasan duen isiltasunaren isla baina ez dela. Horregatik, beharrezkoa da gure gizartean oraindik*

indarrean dauden diskriminazioen aurkako borroka sendotzen jarraitzea, askotan ikusezina diren genero-identitate, -orientazio eta -adierazpen guztiak errespetatuz; gizarte osoaren erantzukizuna diskriminazio- eta indarkeria-mota guztien aurka borrokatzeko.

Berindun hainbat gizarte-eragilerekin lan egiten dugu gizartea ikusarazten eta eraldatzen, eraso horiek guztiak saihesteko. 23 urte igaro dira OMEk homosexualitatea gaixotasuntzat hartzeari utzi zionetik, eta bost urte DSM-5ek (Ameriketako Estatu Batuetako Psikiatria Elkartearen Diagnostiko eta Estatistika Eskuliburua) transexualitatea buruko nahasmendu gisa ezabatu zuenetik. Elkarteok, erakundeek eta gizartearen alderdi konprometituena gogor eta aktiboki lan egiten dugu LGTBI pertsonen aurre egin behar dieten oztopo erantsiak ezabatzeko. Hamarkadak dira Eusko Jaurlaritzak, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren bitartez, edozein diskriminazio ezabatzen saiatzen ari dela; Berdinu zerbitzua horren erakusle da.

Gaur maiatzaren 17a da. Eta gaur, urteko gainerako 364 egunetan egiten dugun bezala, gizarte hobea bultzatzeko eta sexu- eta genero-aniztasunarekiko gorrotoak eragindako erasoak salatzeke konpromisoa berresten dugu. LGTBIfobiarik gabeko gizarte baten alde”.

Alkateak galdetu du eta Udalbaltzako kideren batek horri buruzko oharren bat egin nahi duen.

Ondoren, LGTBIFOBIAren aurkako nazioarteko eguna dela-eta Adierazpen Instituzionala onartzeko bozketa egin da.

XEDAPEN-ZATIA:

Bertaratutakoek AHO BATEZ erabaki dute.

#### **4. LEHENDAKARITZAREN TXOSTENAK**

Alkateak hitza hartu du zinegotziei hitza emateko. Lehenik eta behin, Kulturako zinegotzi Quintana Urrea andreak hartu du hitza, eta datozen asteetan izango diren jardueren berri eman du.

Datorren igandea, maiatzak 28, Arabako Futbol Federazioaren eskutik, Arabako hainbat elkarterekin elkarlanean, gure bat programa ospatuko da. Probintzia osoan zehar egin da, eta asteburu honetan Santikurutzen izango da.

Ekainaren 3an eta 4an Orbisoko jaiak ospatuko direla azaldu du, ostiraletik igandera. Asteburu horretan bertan, igande goizean, Kanpezuko hamaseigarren herri lasterketa izango da, Arabako herri lasterketen barruan. Laster argitaratuko dela eta izena emateko epea irekiko dela adierazi du.

Azkenik, gogoratu datorren ekainaren 9an udal igerilekuak irekiko direla eta irailaren 10era arte egongo direla zabalik. Ordutegia aurreko urteetan bezala mantenduko da, goizeko 11:30etatik 20:30ak arte. Igerilekuko bonoak Udaletxean daude salgai. Era berean, asteburu horretan Eusko Bike ospatuko dela gogoratu du, aurreko urteetan bezala bi ibilbide izango dituen, distantzia luzekoa bata eta laburragoa bestea.

Jarraian, Ogasuneko zinegotzi Muñoz jaunak hartu du hitza, eta adierazi du finantza itxierari dagokionez, Diruzaintza positiboa dela, milioi batetik gorakoa, eta ez duela baldintzarik izango datorren maiatzaren 28ko udal hauteskundeon ondoren

karguaz jabetuko den Udalbaltza berriarentzat. Korporazio berri eratu aurretik, dagokion itxiera egingo da aparteko kontaktarekin.

Era beran, Muñoz jaunak Quintana Uriarte andreak bigarren puntuan hasitako elkarrizketari heldu dio, eta EAJ PNVren batzarkide taldeak 2022ko azaroan Arabako Batzar Nagusietan erregistratutako eskaera ekarri du gogora. Bertan, 2023ko aldirako lehentasun gisa, Kontu Auzitegiak kanpezuko Udala fiskalizatzeko eskatu zuen. Ogasuneko zinegotziak jakinarazi du kontuak publikoak direla eta eskatzen duenaren eskura daudela, legegintzaldian udal gobernu harro agertu baita udal kutxen gardentasunez.

Muñoz jaunak erantzun du EAJren jarduteko modua gobernatu ezin duten erakunde guztiak Herri Kontuen Euskal Epaitegira eramatea dela, eta jarduteko modu hori aurpegiratu dio.

Quintana Uriarte andreak azpimarratu du ez litzatekeela arazorik egon behar, eta bere boto-emaleei eskerrak eman dizkie jarritako konfiantzagatik.

Berriz ere Muñoz jaunak hartu du hitza, EAJren politika egiteko modua kritikatzeko.

## **5. MOZIOA**

### **MOZIOA:**

*"Behean sinatzen dugunok osatzen dugun Lehen Mailako Arretako Unitateetik honako gogoeta hauek helarazi nahi dizkiogu KANPEZUKO Udala udalen osoko bilkurei, eta bereak egin dezatela eskatu, Landa Eremuko Lehenengo Mailako Arretako Unitateen lan-baldintzen eta herritarrei eskaini beharreko zerbitzu onaren defentsa eginez.*

#### **1. NONDIK ABIATZEN GARA?**

*1995ean, landa-eremuko lehenengo mailako arreta antolatu zen Araban, Osakidetzak LMAUak sortu zituelarik. Horrela, populazio handiagoko herrietan zeuden barruti medikoak, Insalud erakundearen etxeko arreta publikoak (APD) artatutako kupoetatik zetozenak, erizaintza, medikuntza eta administrazioaren arloetako profesionalak osatutako unitate bihurtu ziren. Une hartan antolatu zen osasun-arreta herrietako kontsultategietan, 8:00etan ireki eta 15:00etara arteko ordutegiaz, eta banatu ziren arratsalde eta gauetz egin beharreko guardiak landa-unitate bakoitzeko erizainen eta medikuen artean, 15:00etatik eta hurrengo eguneko 08:00ak arte, lehenengo mailako arretako unitatearen eragin-eremuan sor zitezkeen larrialdiei erantzuteko. Bestalde, medikuntzako eta erizaintzako profesionalak kontratatu ziren asteburuetan larrialdiko arreta emateko eta artatu beharreko tratamenduekin jarraitzeko.*

#### **2. ASISTENTZIAREN KALITATEA:**

*Arabako landa-eremuetako populazioari eskainitako osasun-arretaren ezaugarri nagusiak jarraitutasuna, irisgarritasuna eta luzetarakotasuna izan dira. Pazienteek harreman terapeutiko iraunkorra dute artatzen dituzten erizain/medikuek osatutako tandem edo bikotearekin, sarritan hamarkadetan zehar mantendu den harremana izateraino, eta belaunaldien arteko arreta medikua modu naturalen gertatu delarik familia-unitateetan. Balio horiek funtsezkoak dira landatartasunerako, hainbat herri txikitik sakabanatze geografikoaren berezko ezaugarriak dituztelako eta etxean artatu beharreko adineko pazienteen tasa altuko demografiak dituztelako. Landa-eremuko lehenengo mailako arretako ekipoen irisgarritasunak nabarmen errazten du paziente kronikoen eta patologia anitzekoen jarraipena, arreta espezializaturako bideratze-tasa murriztuz, bai eta ospitaleratzeena ere.*

Landa-eremuan egiten dugun talde-lanaren ezinbesteko aktiboa da artatzen dugun populazioaren ezagutza, bai eta osatzen ditugun laguntza-tandemetan etengabeko komunikazioa ere. Gure pazienteek bizi dituzten egoeren ezagutza, askotan, konfidentziala da, eta ez dira historial klinikoetan (HK) islatzen. Funtsezko informazio hori profesionalen artean partekatzen da, funtsezko informazioaren iturri bihurtuta, lortu nahi dugun arreta integrala hobetzen du.

Antolaketa hau bera da gure LMAUren indarguneetako bat, guztion artean eraikitzen joan garen indargunea, arriskuan egon daitekeena bertako errealitatea ezagutzen ez duten erabakiak hartzen badira.

Bestalde, asteburuetako erizainak eta medikuak eremua eta paziente konplexuenak ezagutzea funtsezkoa izan da gure taldearen asistentzia-kalitateko eta ekipoen arteko lankidetzeta-maila arina eta funtzionala izan da beti.

Gaur egun, pentsatzen dugu artatzen dugun populazioak positiboki baloratzen duela gure jarduna eta hala jakinarazten digute, nahiz eta, jakina, badakigu zenbait arlotan hobetu dezakegula, horiexek hobetzeko lanean ari garelarik.

### **3. LAN-BALDINTZEZ.**

Orain arte, gure lantaldeak izan dituen lan-baldintzak, Osakidetzako plantilla osoarenak bezala, 2007/2008/2009 akordioak arautu ditu, eta baldintza orokor horiek eskualdean eta esleitutako plazetan (goizeko txandak, 8:00etatik 15:00etara, eta asteko guardia lokalizatuak) egin izan diren izendapenetan agertu dira, asteburuetako profesionalenak izan ezik, egiturazko plantillan ez baitaude sartuta.

Denbora honetan egon diren gerentziek eutsi diote profesional horiek azken 28 urteetan elkarri kateaturik izan dituzten kontratuen egoerari, gerentzia hauen erantzukizun eskusiboa izan baitira kontratazio horien baldintzak, bai eta langile horiek Osakidetzarekin duten harremanean egonkortzeko aukerarik ez izatea ere.

### **4. ESI ARABAKO ZUZENDARITZAK BERRANTOLATZEKO EGINDAKO PROPOSAMENAZ**

Gure ustez, OSI-Arabako Integrazio-Zuzendaritzak egindako proposamenak ez du ezagutzen landa-eremuan egiten dugun lehenengo arreta, hau zeharo kezkarria izanik.

Zuzendaritza hori, proposamen horren berri emateko egindako bileran, behin eta berriz aritu zen lantaldeko lanorduen "banaketa ekitatiboaz"; baina horrek lan-gainkarga dakarkigu ezinbestean arlo horretan gaur egun ari garen profesionaloi, geure gain ezin hartuzkoa.

Proposamen honek konpondu nahi du orain ESI-Arabako gerentziek urtetan sortutako arazo bat, asteburuko profesionalak behar zenean finkatu eta egonkortu ez zituztelako. Hamarkadatan EAEn sortutako behin-behinekotasun onartezinaren inguruan Europar Batasunak emandako epaiak behartuta eta ezelako plangintzari gabe, ESI-Arabako Zuzendaritzak behartu nahi du Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak unitateari esleitutako plaza berriak sartzen.

Hori gutxi balitz, txandakatze-proposamena ezinezkoa da kontuan hartzen badugu, lehenengo arretako medikuen (LAM) kasuan, duela hiru urte baino gehiago, ez dela ordezkapenik egin edozein librantzatarako. Erizaineen kasuetan, antolaketa berriarekin absentziak ez zirela ordezkatu aurreratu zuten. Zuzendaritzak planteatutako berrantolaketa-proposamenak larriagotuko luke egoera defizitario hori, arretaren kalitatearen kalteaz.

Asteburuak egin beharreko asteetarako zuzendaritzak bidalitako proposamenak 100 orduko lanaldia eskatuko luke eta onartezina iruditzen zaigu.



55 urtetik gorako langileek, arazo hau dela eta, guardiak ez egitea eskatuko balute, zeina aldi berean langile bezala daukaten eskubide bat den, egoera are kaotikoago bilakatzea lekar, zuzendaritzak proposatutako rotazio hau ezin izango litzatekeelako aurrera eraman.

Azkenik, uste dugu proposatutako aldaketek gainkarga handia ekarriko dutela Bezeroaren arretarako arloan (BAA), agendak etengabe doitu behar baititu. Beste alde batetik, zailtasun gehigarriak eragingo dira saio klinikoak eta talde-bilerak egin ahal izateko, profesionalak astegunetan lanean aritzen ez badira.

## **5. ARABAKO MENDIALDEKO LMAUren PROPOSAMENA:**

Uste dugu geure taldearen egungo antolaketak (osasun-arreta 8:00etatik 15:00etara erizain/medikua bikotearekin eta asteroko guardia lokalizatuak 15:00etatik 8:00etara asteleheneetik ostiralera) bermatzen duela herritarrei eskaini nahi diegun asistentzia-kalitatea ordenatua eta funtzionala baita.

Uste dugu behar-beharrezkoa dela asteburuetan zeregin horretarako kontratatutako profesionalen arreta eta, jakina, kontratu horiek finkoak eta egonkorrak izan daitezela, Osakidetza beste edozein profesionali dagozkion librantza eta berme guztiak barne.

Horregatik guztiagatik eskatzen diogu Arabako Mendialdeko udalbatzarrei honako erabaki hauek har ditzatela:

- KANPEZUKO Udala, osasun-zentroko lehenengo mailako arretarako unitateetako langileen iritzia entzun ondoren, bere egiten ditu beronen aldarrikapenak, herritarrei eskaini beharreko kalitatezko arretaren lortzeko eta langileen lan-baldintzen defentsan.
- KANPEZUKO Udala akordio horren berri emango dio ESI ARABAKO Integrazio-Zuzendaritzari, eskatuz bere planteamendua birpentsatu eta inplikaturako profesionalen iritzia kontuan har dezala.

## **ESKU-HARTZEEN EZTABAIDA:**

Alkateak hitzar hartu du Lehen Mailako Atentzioko Unitatea osatzen duten pertsonen txanda emateko. Horiek Kanpezuko Udaleko Osoko Bilkurari hainbat gogoeta helarazi nahi dizkiote, eta Landa Erremuko lehen Mailako Arreta Unitateen lan-baldintza defendatzea eskatu, herritarrei zerbitzu ona emateaz gain.

Jarrai honako puntu hauek azalduko ditugu:

Lehen Mailako Atentzioko Unitateko langileen eskaera nagusia landa-eremuan lan egiteko moduari eustea da, hau da, mediku erizain taldean. Azaldu duenez, Osakidetza pandemia baliatzen ari da osasun-langilerik ez duela justifikatzeko. Barkamen hori erabiltzen dute langileak ez ordezkatzeko, zerbitzu batzuk itxi daitezela. Landa-eremuan, ordezkatzeko langilerik ez duenean, agendak ixten dituzte eta osasun-zentroko sarrera ez da irekitzen. Era berean, adierazi du sindikatuek edozein premia planteatzen dutenean, erantzuna diru falta eta ordezkoen gona izaten dela.

Azaldu du Kanpezuko kasuan mediku titularra erretiratu egingo dela, eta urtariletik aurrera zerbitzuaren erdian Bernedoko medikuarekin ematen dela, eta beste erdia Maeztukoarekin. Azaldu du Osakidetza ez dela lanean ari irtenbide bat bilatzeko. Hori dela eta, LMAUko langileek zerbitzuak lehendik daudenak baino gehiago ez hondatzeko eskatu dute. Solaskidearen arabera, sailburuaren eta politikarien lana zerbitzuak desagertzea da. Ez zaie interesatzen herri guztietan egiten den zerbitzua, eta dena zentralizatu nahi dute langileak murrizteko. Adibide gisa, azaldu du udako

oporrekin ez dela ordezkorik egongo. Gaur egun ez dakigu norik ordezkatuko duen medikua. Era berean, gogorarazi du sailburuan aldaketa beharrezkoa zuela, osasun zerbitzu telematikoa bertuteak aipatuz, eta horrela, irteera birtuala aukera gisa defendatu zuen. Hala ere, medikuek gogor kritikatzeko dute sistema telematikoa, aurretiazko hitzordua eskatzeko eta mediku batek artatu ahal izateko konplexutasuna.

Horregatik, zerbitzu medikoa ez hondatzeko exijitzeko eskatzen zaio udalbaltzari, landa-eremuko langileei laguntza eta egungo sistemaren defentsa eskatzen dute.

Mozioa aurkeztu duten langileen beste bozeramaile batek hartu du hitza, egungo sistemaren defentsa eta hobekuntza eskatzeko. Kanpezun egunero erizain bat egotea nahi dutela azaldu du.

Herrador jaunak hartu du hitza, eta adierazi du zerbitzuan hobekuntzak egiten ditun oro bere talde politikoak babestuko duela. Hala ere, aipatu du eskualdeko langile batzuek ez dutela osoko bilkurari aurkeztatutako testua babestu. Zentzu horretan, esan du testua aurkeztu zenean pertsona batzuek ez zutela eskaera beharrezkoa ikusi eta, beraz ez zela talde gisa sinatu, maila indibidualean baizik. Horregatik, batasunik ezaren arrazoiez galdetu du. Nolanahi ere, uste du planteatutako eskaerak babestu aurretik garrantzitsua dela langile guztiei entzutea. Esan duenez, mozioak lehen mailako arreta osoaren sentimendua adierazi behar du, eta kasu honetan modu kolektiboan adierazten ez denez, nahi eta aitortu garrantzitsua dela Arabako mendialdeko zerbitzua babestea, beharrezko da pertsona guztiak ados egotea.

Alkateak hitza hartu du eta azaldu du Kaixo taldeak landa-inguruan osasuna defendatzearen aldeko apustua egin duela. Horregatik, ez dira sartzen langileek talde gisa dituzten gai pertsonalak baloratzea, eta jakinarazi du ez direla gai pertsonaletan sartuko.

Quintana Uriarte andreak hitza hartu du eta adieraz du eztabaida litekeela, eta EAJk beste pertsona batzuekin adostu duela eta mozio honen bidez aurkeztutako proposamenari beste iritzi bat eman zaiola.

Herrador jaunak berriro esan du mozio bateratua nahi dutela, eragindako pertsona guztiena.

Mozioaren bozeramaileek erantzun dute langileak libre direla adostutako testua babesteko edo ez babesteko, eta ez direla gai pertsonaletan sartuko.

Alkateak galdetu du ea Udalbaltzako kideren batek horri buruzko oharren bat egin nahi duen.

Ondoren, Arabako Mendialdeko Lehen Mailako Atentzioko Unitatean Erakundeak Landa Eremuko Lehen Mailako Arretako Unitateen lan-baldintzak eta herritarrei zerbitzu ona ematea defendatzeko mozioa onartzeko bozketa egin da.

#### **XEDAPEN-ZATIA:**

**ERABAKIA:** Basterra, Muñoz, Ruiz de Loizaga, Quintana Urrtea, López de Luzuriaga, eta Sáenz jaun-andreen aldeko botoekin eta Herrador jaunaren, Quintana Uriarteren eta Castellanoren abstentzioarekin erabaki da.

**LEHENENGOA.-** Herritarrei arreta emateko eta langileen lan-baldintzak defendatzeko kalitatea onaren aldeko aldarrikapenak onartzea.



**BIGARRENA.-** Osoko Bilkuraren erabakia Arabako ESla integratzeko Zuzendaritzari helaraztea, eta inplikaturako profesionalen planteamendua eta iritziak hausnartzeko eta kontuan hartzeko eskatzea.

## **6. GALDE-ESKEAK**

Alkateak udal bozeramaileen taldeari galdetu dio ea gairen bat adierazi nahi duten, eta ez da ezer esan.

Jakinazten da hurrengo Udalbaltza Korporazioa berria eratzekoa izango dela.

Alkateak eskerrak eman dizkie Udaleko Osoko Bilkurako kide guztiei eta Udaleko langile guztiei.

Eta beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilkurari amaiera eman dio idazpuruaren eguneko hoge eta erdietan. Nik, bitarteko idazkariak, horren fede ematen dut.

Alkatearen oniritzia



Idazkaria,



